

ERABILERA PUBLIKOKO EREMUETAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN
ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA

Behin betiko onarpen data: 2024ko otsailaren 27an Hernaniko Osoko Bilkura

Argitarapen data: 2024ko maiatzaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

ERABILERA PUBLIKOKO EREMUETAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. - Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honek xedea hau du: aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan, jarduera ekonomikoek, jarduerari lotutako elementuez, jabaria edozein dela ere, erabilera publikoa duten lurzoruak okupatu ahal izateko araudi tekniko eta juridikoa ematea.

2. artikulua. - Aplikazio-eremua.

Ordenantza hau udaleko erabilera publikoko aire zabaleko espazio guztiei –titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak– aplikatzen zaie (kaleak, plazak, etxadien arteko patioak, arkupeak, oinezkoen espazio libreak, berdeguneak...).

Espazio bat erabilera publikokotzat hartzen da espazio horrek izatez duen erabilera kontuan hartuta nahiz indarrean dagoen hiri-plangintzaren zehaztapenak aplikatuta. Ordenantza honen barruan kontuan hartuko dira jabaria edozein dela ere erabilera publikoa duten espazioetan jartzen diren terrazak eta erakuslekuak.

Halaber, ordenantza honen xedetik kanpo daude baldintza hauek betetzen dituzten instalazioak:

- a) Jabari publikoko ondasunetan egonik, udaleko kontzesio administratibo baten babesean aurrera eramaten diren jarduera osagarriak.
- b) Udaleko organo eskudunak ezarritako egutegiaren arabera, herrian ospatzen diren jaietan egiten diren aldian behingo jarduerak.

3. artikulua. - Araudi aplikagarria

Ordenantza hau ondorengo arauok emandako ahalmenen arabera egin da: Toki Araubidearen Oinarri buruzko 1985eko Legearen 49. eta 84. bis 1.a) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Araubideari (Herri Administrazioei) buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, eta Toki Erakundeen Ondareei buruzko 1986ko Erregelamenduaren 77. artikulua, eta Toki Erakundeen Ondareei buruzko Erregelamendua.

Orokorrean, bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak eta beste elementu osagarri batzuk jartzeko araudia aurrez aipatu ditugun xedapenetan egokituko da.

Horrez gain, arloan dauden eta aplikagarri zaizkion xedapenak ere kontuan izan beharko dira, besteak beste, indarrean den hirigintza plangintza, irisgarritasun legedia, hots kutsadurari buruzko legedia, etab.

4. artikulua. - Baimenen izaera.

Bide publikoaren okupazioak eta ustiapenak ohiko erabilera berezien kategoria juridikoan sailkatuta daude; jabetza-eskubiderik gabe ematen dira eta beste pertsonen eskubideak erabiltzeari ezertan eragotzi gabe. Aurrez, udalaren baimena behar da, eta hori ordenantza honetan aurreikusitakoaren

arabera emango da.

Udal lizentziaren eskaera egin ahalko dute, soilik, ostalaritzako edo saltoki establezimenduen jarduera lizentziaren gaineko titulartasuna dutenek, baldin eta establezimendu horien funtzionamendua eta jarduera dagokien arau urbanistiko eta sektorialen arabera eramaten badira aurrera.

Terrazen eta erakuslekuen lizentziak nahitaez uztartuta geratuko dira dagokien ostalaritzako edo saltokietako establezimenduen lizentziekin, eta, beraz, ezingo dira eskualdatu establezimendu horien jardueretatik bereizita. Establezimenduaren jardueraren titularra aldatzen bada, titular berriak terraza-lizentzia eskualdatzeko eskatu beharko du, gehienez ere hilabeteko epean, jardueraren titularra aldatzen denetik zenbatzen hasita. Aurreko titularrari emandako terraza-lizentziaren aldia ezin izango da luzatu, eta titular berriak eskatu beharko du aldi berrirako lizentzia berria.

Gainera, prekarioko lagapenak izaten dira eta atzera bota daitezke interes publikoko arrazoiengatik, kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez du baimena eskuratzea bermatzen dion eskubiderik, hortaz, kasu horietan baimena ematea hautazkoa da; edonola ere, hartutako ebazpena arrazoitu beharra dago.

Zoru publikoa okupatzeko baimendutako aldiak aldatu egin daitezke hauen ondorioz: turismoarekin, merkataritzarekin edo jaiekin lotutako jarduerak, obrak edo ekitaldi publikoak, Udalak antolatutakoak. Halaber, aldi horiek aldatu egin daitezke beste interesdun batzuek jarduerak egin behar badituzte, eta jarduera horiek administrazio honek baimendu beharreko eskubideekin lotuta daudenean.

Lizentziak urte baterako edo denboraldi baterako emango dira, egin den eskariaren arabera eta araudi honen 8 artikulua xedatzen duena kontuan izanik.

Baimenen titularren arrisku eta menturan eramango da aurrera jarduera. Debehatuta dago ordenantza honetan zehazten ez diren altzari edo elementuak jartzea.

Baimendutako espazioaren gehieneko okupazioa zehaztuz emango dira lizentziak, mahai-moduluak eta utzi beharreko pasabideak kontuan hartuta. Kasu bakoitzean, titularrak erabakiko du zenbat mahai jarriko dituen eta zenbat denborarako, eta dagokion tasa ordaindu beharko du. Beti ere araudi honen 10. artikuluan zehazturiko muga eta baldintzekin.

5. artikulua. - Okupa daitezkeen espazioen ezaugarriak.

Hainbat espazio publiko mota bereizten dira, erabileraren eta eremuaren arabera:

- I. mota. Ibilgailu zirkulazioa duten kaleetako espaloiak
- II. mota. Oinezkoen kaleak.
- III. mota. Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk.
- IV. mota. Aterpeak
- V. mota. Baimen bereziko espazioak

II. TITULUA. ZEHAZTAPENAK.

II.I. ATALA. DEFINIZIOAK.

6. artikulua. - Ordenantzak arautzen dituen elementuen definizioak.

Ordenantzak espazio publikoan kokatu daitezkeen hurrengo elementuak arautzen ditu: terrazak, salgai dauden produktuen erakuslekuak, eta elementu osagarriak.

Terraza esaten diogu jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiazko komunikazioa edo habilitazio-titulua duen eta publikoari irekita dagoen ostalaritza-

jarduera baten osagarri gisa balio duen (batera edo banaka, eta modu iraunkorrean) mahai, aulki, toldo eta behin-behineko instalazio mugikorren multzoari.

Salgai dauden produktuen erakuslekua esaten diogu jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiako komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa denda baten kanpoan jartzen den behin-behineko elementu mugikorrari, produktu jakin bat nabarmentzea eta bezeroari eskura jartzea helburu duenari.

Elementu osagarritzat hartzen da terraza edo salgai dauden produktuen erakuslekua ez den eta hilabete baino gehiagoko denbora-tartean ostalaritza- edo merkataritza-saltoki baten kanpoaldean jartzen den beste edozein elementu, jarduera gauzatzeko indarrean dagoen araudiaren arabera irekitzeko lizentzia, aurretiako komunikazioa edo habilitazio-titulua duen jarduera baten osagarri gisa. Definizio horren barruan sartuko lirateke dekorazio-elementuak, elementu ludikoak, jolasarekin lotutakoak...

7. artikulua. - Elementuen definizioak

Terrazetan baimendutako elementuen definizioak:

1. Moduluak:

Mahai eta aulkiez osatutako multzoak dira, ezaugarri eta tamaina zehatzekoak. 2 modulu mota ezartzen dira eta horrez gainera modulu bereziak aurkezteko aukera eskaintzen da. Moduluen arteko gutxieneko distantzia ere errespetatu beharko da terraza barnetik pausua bermatzeko.

2. Mahai irisgarriak:

Irisgarritasun baldintzak betetzen dituen mahai eta aulki multzoa. 5 mahai baino gehiago dituzten terrazak gutxienez bat izan beharko dute.

3. Albo-babesak (manparak edo loreontziak):

Horiek jartzeko berariazko lizentzia eskatu behar da. Segurtasuna bermatzeko beharrezko direnean derrigorrezkoak izango dira. Haizetik babesteko balio dezakete edo naturaren presentzia areagotzeko. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira.

4. Eguzkitakoak:

Eguzkitatik babesteko elementu mugikorrek dira. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko. Terraza eremuaren barruan egon beharko dira.

5. Toldoak:

Zoladurara finkatu ezin diren egitura autosostengatzaille mugikorrek edota fatxadara soilik lotuta zabaldu edo jasotzen diren estalki egiturak dira. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar dira. Horiek jartzeko berariazko lizentzia eskatu behar da.

6. Garbitasunerako elementuak:

Hautsontziak beharrezkoak izango dira.

7. Produktuen erakuslekuak:

Merkataritza-establezimendu batean saltzen diren produktuak erakusteko erabiltzen diren altzariak

8. Informazio moduluak:

Informaziorako moduluak, ostalaritza establezimenduak jakitera eman nahi duen informazioa helarazteko panela; arbel motakoa edo paperean informazioa itsatsia duena izan daiteke. Terrazak okupatzen duen eremuaren barruan jarri behar da.

II.II. ATALA. DENBORALDIK ETA ORDUTEGIAK

8. artikulua. - Iraupena, denboraldia eta indarraldia

1. Terrazak jartzeko lizentziek hiru iraupen izan ditzakete, eta lizentzia beraren barruan konbinatu egin daitezke iraupena eta ezaugarriak (mahai kopurua...):

a) Urtebeterako.

b) Aldi baterako: Udako denboraldia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra).

2. Emandako baimena automatikoki berrituko da datozen ekitaldietarako baldintza berberekin eta epe berdinerako, baldin eta aurretik ez bazaio Hernaniko Udalari baja emateko idatziz eskatu.

Luzatutako lizentzia eraginkorra izan dadin eta terrazan, salmentarako erakuslekuen eta elementu osagarrien erabilera gaitu dezan, lizentziaren titularrak aurreko baimenari dagokion tasa ordaindua izan beharko du urte horretako ekitaldian bide publikoa erabiltzeagatik. Aurreko baimenaren tasa ordaindu gabe baldin badago ez da lizentzia luzatuko.

9. artikulua. - Garaiak, ordutegiak eta mugak.

9.1. Ordutegi orokorraz gain, aparteko bi garai bereizten dira: terrazak jartzeko aukera mugatu edota ixteko ordutegiak desberdintzen dituztenak:

Ordutegi zabaleko garaia: maiatzaren 1etik urriaren 31ra.

9.2. Terrazak kanpoan jarrita egon daitezkeen ordutegien mugak, establezimenduen ordutegia edozein delarik ere, honako hauek dira:

a) Ordutegi orokorra:

Terrazak jartzeko ordutegia:

Astegunetan: 8:00etan.

Asteburuan: 9:00etan.

Terrazak kentzeko ordutegia:

Igandetik ostegunera: 23:00ak arte.

Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 00:00ak arte.

b) Ordutegi zabaleko garaia (maiatzaren 1etik urriaren 31ra):

Terrazak jartzeko ordutegia:

Astegunetan: 8:00etan.

Asteburuan: 9:00etan.

Terrazak kentzeko ordutegia:

Igandetik ostegunera: 23:30ak arte.

Ostiral, larunbata eta jai-bezperatan: 00:30ak arte.

9.3 Bestelako mugak

a) Terrazak hasierako ordutegiarekin batera jarri ahal izango dira, alegia, ezingo dira aurretik ipintzen hasi.

b) Terrazak kentzeko, terrazan ordutegia amaitu eta hogeita (20) minututan gehienez jasota egon beharko dira.

c) Terrazako ordutegia amaitzean terrazako elementuak lokalaren barrura sartu beharko dira edo

bide publikoko baimendutako espazio batean pilatu, oinezkoen ibilbidearen kanpo egon beharko dena.

d) Terrazetako edozein elementu jarri, bildu eta mugitzaerako momentuan zaratarik gabe egiteko neurriak hartu beharko dira. Materialak garraiatzeko modu bezala gurpildun karroak erabili daitezke, beti baldin eta gurpilak soinua ateratzen ez badute. Terrazako altzariak lotzeko kateak erabiltzen badira, plastikozko edo bestelako materialez forratuta egon beharko dute, zarata egin ez dezaten.

9.4. Merkataritza-establezimenduetako erakuslekuak (janari dendak, okindegiak, gozotegiak...) eta elementu osagarriak jartzeko ordutegia merkataritza-establezimenduak zabalik mantentzen den ordutegi bera izango da. Nolanahi ere, ezin izango dira 08:00ak baino lehen jarri, eta 20:00ak baino lehen kendu beharko dira.

Merkataritza-establezimenduren batek terraza jartzeko lizentzia balu, hau jarri edo kentzeko baldintzak gainerako ostalaritza-establezimenduen berdinak izango dira eta ezingo dira jarrita eduki establezimenduak bete beharreko gehieneko ordutegitik kanpo.

9.5. Eskumena duen organoak terraza kentzeko ordutegia aldatu dezake salbuespenez, bai udalerrira osoan, bai zati batean, herriko jaiak edota garrantzi bereziko egunak direlako edo bestelako egoeraren batek hala baimentzen badu.

9.6. Oinezkoen kaleetan eta oinezkoak zein ibilgailuak ibil daitezkeen kaleetan, kasu kasu aztertuko da terraza zamalanen ordutegiaren barruan jarri ahal izatea. Terraza zamalanen jarriotasuna oztopatuko balu, neurriak hartuko dira.

9.7. Udalak antolatutako edozein ekitaldi egiteko erabiltzen diren espazio publikoetara dagokienez, terrazak jartzeko ordutegia ez da hasiko udal-zerbitzuek jasotzen eta garbitzen amaitu arte.

9.8. Terraza erabiltzearekin lotutako molestiak direla eta, bizilagunen edo beste kaltetu batzuen kezak jasotzen badira, eskumena duen organoak, behin egiaztapenak eginda eta araua hausten duela egiaztatzen bada, ireki edo ixteko ordutegia muga dezake aldi baterako edo behin betiko, eta, hala dagokionez, atzera bota dezake lizentzia; kasu horretan, kendu egin beharko litzateke instalazioa.

III. TITULUA.

III.1. ATALA. INSTALAZIOEN BALDINTZAK

10. artikulua. - Baldintza orokorrak.

a) Establezimenduko fatxada guztietan jarri ahal izango dira mahaiak. Lokal baten bi fatxadak angelu zuzenean baldin badaude, terraza ezin izango da jarraia izan.

b) Terrazaren azalera ezingo du gainditu establezimenduaren fatxadaren luzera, espazio-beharrengatik alboko etxaurreak okupatzeko baimena eskatu ezean. Horrelakoetan, alboko establezimenduek uko egin behar izango diote establezimenduaren aurrean dagoen espazioa erabiltzeko eskubideari, uko egite hori partziala izan daiteke. Uko egite hori bat etorri beharko du espazio hori erabiltzera lagatzen zaion establezimenduaren terraza-lizentziaren indarraldiarekin.

c) Oro har, terrazaren elementurik gertukoena 15 m gehienez aldentuta egongo da establezimenduaren fatxadaren edozein puntutatik, bertatik haren ikuspegia izan badaiteke, baldin eta segurtasun arazoak direla-eta terraza tarte horretan ezartzea desegokia ez bada.

d) Elkarren alboz alboko establezimenduetan terrazak ezartzekotan, lerrotuta ezarri beharko dira, oinezkoen joan-etorriak zuzenak izan daitezkeen eta sigi-sagan ibili beharrik izan ez dezaten.

e) Inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi

beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

f) Terraza barruan mugitzeko erraztasuna eskaini beharko da eta horretarako 2.1 eranskinean grafikoki adierazten diren distantziak errespetatu beharko dira:

- Igarobidearen bi aldetara eserlekuak badaude 1,40 m-koa izan beharko du mahaitik mahairako tarteak.

-Igarobidearen alde bakarrean badago eserlekua 1,10 m-koa izan beharko da mahaitik mahairako tartea.

- Igarobidearen aldeetan eserlekurik ez badago 0,80 m-koa izan beharko da mahaitik mahairako tartea.

g) Terraza-lizentziaren indarraldi epea amaitu ondoren, elementu guztiak bide publikotik kendu beharko dira.

h) Terrazako altzari guztiak lokalaren barruan gorde beharko dira. Toki falta dela-eta barruan gordetzetik ez duten eta hori behar bezala justifikatzen duten establezimenduek baimena eskatu beharko dute horiek bide publikoan biltzeko; eskaera egitean haiek proposatu beharko dute horiek biltzeko okupatuko den azalera zein izango den eta udalak onartu edo beste kokapen bat proposatuko du. Oinezkoen ibilbidearen kanpo egon beharko dira eta mugikortasun-bastoiekin detektatzeko errazak izan beharko dira.

i) Tasaren zenbatekoa dagokion zerga ordenantzaren arabera erabakiko da.

j) Fatxadari atxiki beharreko elementuak (hala nola toldoak eta erlaitzak) ezartzeko baimena emateko, hirigintza araudia betetzen den aztertuko da.

k) Ordenantzan ezarritako irizpide eta xedapen teknikoak betez gero, ordenantza honetan arautu gabeko baldintzak eta ezaugarriak dituzten espazioak okupatzeko eskariak ere ebatzi ahal izango dira.

11. artikulua. - Irisgarritasun eta zirkulazio baldintzak.

Jabari publikoko eta erabilera publikoko espazioetan terrazak jartzeko, espazio publikoetako irisgarritasunari buruzko araua eta ordenantza honetako baldintzak bete behar dira.

Irizpide orokor gisa, pasabide libreko zabalera bat ezartzen da oinezkoen zirkulaziorako (2 m) eta beste bat ibilgailuen zirkulaziorako (3 m).

Zabalera libre hori kalkulatzeko orduan, berau mugatzen duten oztopotzat hartuko dira hiri-altzariak, jardinerak, farolak, markesinak, posteak, hesiak eta espaloietan edo horien proiektio bertikalean egon litekeen beste edozein elementu, alboko beste terraza batzuek hartzen duten espazioa barne.

Eskatzen den pasabide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen edo ibilgailuen trafikoarekin lotutako arrazoi justifikatuengatik eta udal-zerbitzuen iritzi arrazoituagatik.

Era berean, 5 mahai baino gehiago dituzten terrazak gutxienez mahai irisgarri bat izan beharko dute. Mahai honen baldintzak 15. artikuluan eta II.I. Eranskinean xehatzen dira.

OINEZKOEN ZIRKULAZIO BALDINTZAK

Terrazen instalazioek oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar dute, irisgarritasunari buruzko arauetan ezartzen dena (2 m-ko pasabidea, gutxienez). Hala, irisgarritasunaren oinarritzko baldintzak betetzen dituztela bermatu beharko dute, baita urbanizatutako espazio publikoetara sartzeko eta

horiek erabiltzeko bazterketarik ezerako oinarritzko baldintzak ere, eta ezingo dute galarazi oinezkoentzako ibilbide irisgarrien baldintza orokorrak betetzea.

Irisgarritasunari buruzko arauetan ezarritako betekizun guztiak betetzea posible ez den hiri eremu finkatueta soluzio alternatiboak baimen daitezke, ahalik eta irisgarritasun handiena bilatuz eta irisgarritasuna ez okerragotzearen irizpideari jarraituz. Terraza jartzeko lizentzian arazoitu eta baimendu behar dira soluzio horiek.

Kasu guztietan hurrengo baldintzak bete beharko dira:

a) Terrazako elementu bakar batek ere ezin du baimendutako eremua gainditu, ezta aurrez eskatutako oztoporik gabeko oinezkoen pasabidea inbaditu ere.

b) Oinezkoen erabilerako eremuetan dauden tabernen terrazek eta antzeko instalazioek hartzen duten gainazalak hautemateko modukoa izan behar du, eta saihestu egin behar dira ikusmen-dezgaitasuna duten pertsonentzat arrisku edo traba bat eragin dezaketen elementu edo egoerak. Hala, terrazen instalazioek eta antzeko instalazioek ezin diete kalterik eragin oinezkoentzako ibilbide irisgarriari eta ezin dituzte egoera baztertzailak sortu espazio publiko urbanizatueta sartu eta horiek erabiltzeko. Ondorio horietarako, aipatutako baldintzak bermatzeko beharrezkoa balitz, terrazaren perimetroa babes-elementuen edo haize-babesen (mugikortasun-bastoiekin atzemateko errazak izan beharko direnak) bidez mugatzeko betebeharra ezar dezakete terrazak jartzeko lizentziek.

IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO BALDINTZAK

Terrazen instalazioak oztoporik gabeko pasabide bat errespetatu behar du ibilgailuen, larrialdi-zerbitzuen eta beste zerbitzu batzuen irisgarritasuna bermatzeko (3 m-ko pasabidea, gutxienez). Halaber, eraikinetako atarietarako, saltoki publiko edo pribatueta eta eraikinen larrialdi-irteereta sarbideak errespetatu behar dira, eta ibilgailuak sartzeko edo irteteko maniobra egin daitezkeela ziurtatu behar da.

12. Artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko neurriak.

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak euskaraz idatziko dira: menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharra, arbetako oharra... Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabiltzea beharrezkoa bada, euskara nabarmendu beharko da.

Kontuan hartuta Hernaniko egoera soziolinguistikoa (% 62 euskalduna eta % 17 ia euskalduna, Hernaniko UEMAko kide) zerbitzari eta bezeroekiko harremanetan erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara izatea sustatuko da, betiere euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunari buruzko araudian jasotakoari jarraiki.

13. artikulua. Baldintza espezifikokoak.

13.1 I. motako espazioeta. (Ibilgailu zirkulazioa duten kaleeta espaloiak).

a) Kontuan hartuko dira oinezkoen joan-etorrieta pasabideak, joan-etorrien intentsitatea eta espaloia ezaugarriak (hiri altzaririk bada, zuhaitz-txorkoak dauden).

b) Terraza ezartzeko baimena emateko, 2,60 m-tik gorako zabalera izan behar du espaloiak. Edonola ere, okupazioak ezin du gainditu espaloia ezaugarrien % 50.

2,60 m-tik beherako zabalera duten espaloietan, berriz, baldin eta zuhaitz-txorkorik bada, mahaiak eta aulkiak ezartzeko baimena eman ahal izango da, zuhaitz-txorkoen arteko espazioa aprobetxatzeko, betiere, gutxienez 2 m-ko pasabidea, bermatzen bada, edo aurrez zeuden elementuek lagatako pasabidea txikitzen ez bada.

Egituradun toldo mugikorrek ezartzeko baimena emateko, 2,50 m-ko oinezko pasabide bat bermatu behar da uneoro. Egituradun toldoen ezaugarriak 18. artikuluan eta II.III Eranskinean xehatzen dira.

c) Orokorrean terraza zintarriaren alboan ezarri behar da fatxadatik hurbileneko eremua oinezkoentzat libre utzita (2 m-ko pasabidea, gutxienez). Segurtasun-arrazoiak direla eta, zintarriaren eta terrazaren artean gutxienez 60 cm-ko tartea utzi behar da lineako aparkaleku baten ondoan badago; eta bateriako aparkaleku baten ondoan badago, 30 cm-koa. Zintarriaren alboan aparkalekurik ez badago eta ibilgailuak pasatzen badira, alboko babes jarri behar da derrigorrez.

d) Zuhaitz-txorko ilarak edo hiri altzariak dituzten espaloietan edo etorbideetan, horiekin lerrokatuta egon beharko du terrazak.

e) 2 mahai ilara jarri ahal izango dira gehienez.

f) Terrazak fatxadaren aldean jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

g) Terraza, oinezkoen pasabide baten bukaeratik 2 m aldentuta egon beharko da.

h) Udalak soilik onartuko du terraza jartzea ibilgailuak igarotzen diren bide baten beste aldean salbuespen moduan, eta beste aukerarik ez dagoenean. Onartzen den kasuetan, 6 mahai jarri ahalko dira gehienez.

i) Hiri-altzarietatik gutxienez 1,5 m-ko tartea utzi beharko da.

13.2 II motako espazioetarako. (Oinezkoen kaleak).

a) Zuhaitz-txorko ilarak edo hiri altzariak dituzten oinezkoen kaleetan, horiekin lerrokatuta egon behar du terrazak.

b) Arau orokor gisa, okupazioek 3 m-ko gutxienerako pasabide bat utzi behar dute libre larrialdiko ibilgailuak igarotzeko eta garaje partikularretako sartu-irtenetarako. Espazio libre honetan balkoiak edo altura fatxadek eduki dezaketen beste edozein irtengune ere kontutan hartu beharko dira.

c) Terraza ezartzeko baimena emateko, 4 m-tik gorako zabalera izan behar du kaleak. Edonola ere, okupazioak ezin du gainditu kalearen zabalaren % 50.

4 m-tik beherako zabalera duten espaloietan, berriz, baldin eta zuhaitz-txorkorik badago, mahaiak eta aulkiak ezartzeko baimena eman ahal izango da, zuhaitz-txorkoen arteko espazioa aprobetxatzeko, betiere, gutxienerako 3 m-ko pasabidea, bermatzen bada edo aurrez zeuden elementuek lagatako pasabidea txikitzen ez bada.

d) Kalean parez pare dauden bi terrazek topo egiten badute, eta gutxienerako pasabideak babestu beharra badago, udal-zerbitzuek erabakiko dute horien banaketa, oinezkoen trazatuari oztoporik jarri gabe.

e) Terrazak fatxadaren aldean jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

f) 2 mahai ilara jarri ahal izango dira gehienez

g) Hiri-altzarietatik gutxienez 1,50 m-ko tartea utzi beharko da.

13.3 III. motako espazioetarako. (Plazak eta oinezkoen beste espazio batzuk).

Terrazak plaza eta espazio libreetan jartzeko eskakizunak aztertuko dira kasuan kasuko ezaugarrien arabera eta honako baldintza hauen arabera ebatziko dira:

a) Terrazak fatxadaren aldean jartzen badira, inguruko etxebizitza eta lokaletarako sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

b) Egoteko erabilera eta oinezkoen zein ibilgailuen zirkulazioa bermatuko dira.

c) Udal-ekipamenduak errespetatuko dira, hala nola lorategiak, haurren parkeak eta hiri-altzariak, oro har; gutxienez 1,50 metroko zabalera librea utziko da.

d) Establezimenduaren fatxadaren bat terraza jarri nahi duen plazara edo espazio librera eman beharko du.

e) 4 mahai ilarako terrazak ezarri ahal izango dira.

f) Terrazen gehienezko okupazioa, espazioaren % 25-a izango da (udal-ekipamenduak, bideak... kontuan hartu gabe).

g) Espazioaren ezaugarriak direla eta banaketa proportzionala egin beharko balitz, aintzat hartuko da saltokiaren barruan dagoen publikoari irekitako espazioa, hau da, lokalaren barruko azaleraren proportzio zuzenean jarri ahalko da kanpoko terraza. Kasu guztietan aintzat hartuko da espazioaren urtaroko izaera, eta okupatuko espazioa inoiz ez da izango libre dagoen espazioaren % 25 baino handiagoa (udal-ekipamenduak, bideak... kontuan hartu gabe).

h) Terraza bat baino gehiago dauden hiri eremu homogeenetan, terraza guztietan altzari homogeenak jartzeko eska dezake udalak. Hala, denak batera eta harmonia estetikoko berariazko baldintzekin jartzea azter dezake. Ondorio horretarako, eraginpeko ostalaritza-saltokiek udalari aurkeztu beharko dizkiote haien kokapen eremuari dagozkion proposamena edo proposamenak, banaka edo taldean. Udalak erabakiko du, saltoki horiekin batera adostuta, zer proposamen egokitzen den ongien interes orokorretara.

Adostasun batera iritsi ezean, udalak ahalmena izango du aipatutako hiri-altzariei dagozkien baldintza tekniko eta estetiko egokienak zein diren erabakitzeko.

i) Halaber, terraza bat baino gehiago dituzten plaza edo espazio libreen kasuan, udalak erabaki dezake zein den terrazak jartzeko kokapenik egokiena. Horretarako, espazioaren ezaugarriak hartuko ditu kontuan (urtaroko izaera, oinezkoen bidea, ibilgailuen zirkulazioa, etab.).

13.4. IV motako espazioetarako. (Arkupeak)

Terraza jartzeko eskaria egin ahal izango da segidako baldintzak betez:

a) Oinezkoentzako 2 m-ko pasabide librea bermatu beharko da.

b) Ezingo du arkupearen zabalaren % 50 baino gehiago okupatu.

c) Ezingo ditu zutabetarte guztiak okupatu oinezkoen fluxu naturalak ez oztopatzeko eta arkupeetarako sarbideak uzteko. Gehienez hiru zutabe tarte okupatu ondoren bat libre utzi beharko da.

d) Arkupeek irteerarik ez badute oinezkoentzako gutxieneko espazio librea 1,5 m-koa izan ahalko da.

e) Terraza beste leku batean jarri ezin bada, kasuan kasu aztertuko da aurreko puntuetan ezarritako baldintzen malgutasuna. Udal teknikariek txostena egingo dute eta horren arabera erabakiko da zein

kasuetan aplikagarri izan daiteke malgutasun hori, interes orokorra irizpide gisa erabiliz.

13.5. V motako espazioetarako. (Baimen bereziko espazioak).

TERRAZA AMANKOMUNAK

Udalak terraza amankomunak jartzeko baimen bereziak emango ditu baldintza hauen pean:

- a) Terraza amankomunak jartzeko eremuak tabernariak proposatzeko dituzte. Udalaren esku egongo da eremu horietan terraza jartzeko baimena ematea.
- b) Espazio berezi hauetan mahaiak jarri nahi dituzten establezimenduek modu koordinatuan egin beharko dute haien proposamena.
- c) Eremu hauetako terrazek ere ordenantza honetako arautegia bete beharko dute, lokalaren gertutasuna eta fatxadaren proiektzioaren baldintzak izan ezik.
- d) Terraza amankomuna elkarbanatuko duten establezimenduen artean modu proportzionalan banatuko dira terrazako mahaiak eta horren araberako tasa ordainduko dute.
- e) Terraza lokalaren jarduera lizentziaren jabearen ikus-eremuan egongo ez denez, lizentziaren jabearen erantzukizuna izango da bizikidetzara-arauek betetzen direla bermatzea.

III.II. ATALA. INSTALATUKO DIREN ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

14. artikulua. Mahai-modulu aniztasuna.

I. moduluak: mahai biribila edo karratua

- 4 aulkirekin 2x2 m-ko gainazala hartzen duena.
- 3 aulkirekin 1,40x2 m-ko gainazala hartzen duena.
- 2 aulkirekin 0,80x2 m-ko gainazala hartzen duena.
- 2 aulkirekin 0,60x2 m-ko gainazala hartzen duena.

II. moduluak: alde bateko mahai laukizuzena, 1 m x 0,40 m-koa

- 1 aulkirekin 1x1 m-ko gainazala hartzen duena.
- Mahaira begirako 2 aulkirekin 1x1,10 m

Modulu berezia:

Aukera egongo da mahai eta forma ezberdinetako terrazak proposatzeko eta terrazetan jarri ahal izango dira, beti ere segidako baldintzak betez gero:

- Udalak proposamena onartzea (Kasu bakoitza banan-banan aztertuko du, espazioaren forma eta azalera kontuan hartuta).
- Pertsona bakoitzaren okupazioa eta mahaiarenak, okupazio osoa emango duen errektangulu baten barruan aurkeztea. Errektanguluaren neurriak adierazita egon beharko dute.
- Pertsona bakoitzaren okupazioa 0,60 m zabal eta 0,60 m sakonekoa izatea gutxienez.
- Proposamenak irisgarritasunari buruzko araudia betetzea.

II.II. Eranskinean moduluak grafikoki azaltzen dira.

ITXURA - MATERIALITASUNA

Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira (plastikoa erabili ahal izango den arren) eta kolore neutroak. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko altzariak. Mahai eta aulkietan gehienez 15x15 cm-ko publizitatea jarri ahal da. Mahaiak eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, zaratak arintzeko. Aise piltzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.

15. artikulua. Mahai irisgarriak

5 mahai baino gehiago dituzten terrazak gutxienez mahai irisgarri bat izan beharko dute. Ezaugarri hauek izango dituzte (II.I. Eranskinean grafikoki adierazi direnak):

- a) Mahai baxua.
- b) Mahaiaren 3 aldetan 1,20 m-ko pasabide libre (aulkiek ere okupatu ezingo dutena) izango du.
- c) Aniztasun funtzionala duten pertsonen lehentasuna izango dute mahai hauek erabiltzerako orduan.
- d) Mahaiaren gainazalean mahai irisgarria dela adierazten duen ikurra ezarriko da.

ITXURA – MATERIALITASUNA

Terraza osatzen duten bestelako mahaien berdina izan beharko dute. Hori horrela, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira (plastikoa erabili ahal izango den arren) eta kolore neutroak. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko altzariak. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, zaratak arintzeko. Aise pilatzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.

16. artikulua. Alboetako babesak (manparak edo loreontziak).

Segurtasun- eta gatazka-arrazoiengatik, derrigorrezkoak izango dira alboetako babesak kasu hauetan: terraza ibilgailuen zirkulazioa duen bide batek mugatutako zintarriaren alboan kokatuta dagoenean eta babesteko elementurik eta aparkatutako ibilgailurik ez dagoenean. Era berean, udal-zerbitzu teknikoek erabaki ahal izango dute alboetako babesak beharrezkoak direla terrazaren eta ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta.

Gainerako kasuetan terrazaren titularrak berak ere hauek jartzeko eskaria egin dezake baldin eta ez badaukarte handik igarotzen direnentzako arriskurik, ezta bide publikoaren kalte edo gorabeherarik ere. Dena dela udal teknikariek aztertuko dute kasua erabakia hartu aurretik.

GUZTIETARAKO

- a) Beti terrazaren baimendutako eremuaren barruan kokatu beharko dira.
- b) Kokapena erabakitzerakoan oinezkoen sarbide eta joan-etorri beharrak lehenetsi behar dira.
- c) Berariazko lizentzia beharko da horiek jartzeko.
- d) Hautemangarriak izan beharko dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen mugikortasun-bastoiek detektatu ahal izateko.

MANPARAK

Terraza mugatzeaz gain, haizetik babesteko ere balio dezakete. Ezaugarriak hauek izan behar dituzte:

- a) Ezingo dira zorura lotu.
- b) Gardenak izan beharko dira eta 68/2000 dekretuaren 4.2.1 artikuluko 8. atalaren arabera ezaugarriak bete beharko dituzte.
- c) Egonkorrak eta jarraituak izan behar dute, ertz bizirik gabeak, euskarrietara behar bezala ainguratuak, mugitzea nahiz iraultzea ekiditeko.
- d) Terrazak hartzen duen eremuaren alde bat estali gabe utziko da gutxienez.

- e) Luzera 2,50 m-koa izango da gehienez, eta 1 m eta 1'80 m artekoa, berriz, altuera.
- f) Hiri-altzariekin harmonia estetikoak gorde behar du ahal dela, eta kolore neutroak erabiliko dira (zuria, beltza, grisa, egurrezkoa, krema kolorea).
- g) Behin ordutegia amaituta, manpara eta hauen euskarriak lokalaren barrura sartu behar dira eta, posible ez bada, aurrez baimendutako leku batean jar daitezke, oinezkoen eta ibilgailuen igarotzeari kalterik eragiten ez dioten leku batean (adibidez, lehendik dauden hiri-altzarien lerro berean).

LOREONTZIAK

Terraza mugatzeaz gain, haizetik apur bat babesteko eta naturaren presentzia areagotzeko ere balio dezakete. Honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- a) Ezingo dira zorura lotu.
- b) Loreontzia eta landarea kontuan hartuta gehienez 1,20 m-ko altuerakoak izan beharko dute eta gehienezko luzera 2,50 m-koa.
- c) Hiri-altzariekin harmonia estetikoak gorde behar du ahal dela, eta kolore neutroak erabiliko dira (zuria, beltza, grisa, egurrezkoa, krema kolorea).
- d) Behin ordutegia amaituta, orokorrean, loreontziak lokalaren barrura sartu behar dira eta, posible ez bada, aurrez baimendutako leku batean jar daitezke, oinezkoen eta ibilgailuen igarotzeari kalterik eragiten ez dioten leku batean (adibidez, lehendik dauden hiri-altzarien lerro berean).

17. artikulua. Eguzkitakoak.

Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko. Eguzkitakoek ondorengo ezaugarriak izan behar dituzte:

- a) Oihalezkoak, marrazkirik gabeak eta kolore bakarrekoak izan behar dute. Ezingo dira kolore deigarriak erabili. Gehienez 15x15 cm-ko publizitatea jarri ahalko da.
- b) Zabalduta daudenean, terrazaren oinplanoko proiektzioa 50 cm gainditu ahal izango dute.
- c) Ezingo dute inolako itxitura bertikalik eduki.
- d) 2,20 m-ko altuera librea utzi behar dute gutxienez.
- e) Euskarri finkorik gabe eta zoruari lotu gabe ezarri behar dira, aise garraiatzeko moduko kontrapisuetan bermatuta.

18. artikulua. Toldoak.

Ostalaritza-saltokien kanpoan jarritako toldoak bertako jarduerarekin lotuta daudela ulertzen da. Terraza babestea da horien funtzioa eta, horregatik, ordenantza honetan arautuko dira fatxadan ainguratutako edo finkatutako toldoak eta egitura mugikorrek dituzten toldoak.

Estalkiaren materialak oihal erakoa eta leuna izan behar du, eta euskarriak altzairuzkoa (herdoilgaitza edo burdinurtuzkoa). Elementu hauek homologatuak egon beharko dira. Biek nolabaiteko harmonia eta estetika mantendu behar dute hiri-altzariekin; kolore neutroak erabili behar dituzte (zuria, beltza, grisa, egurrezkoa, krema kolorea), kolore bakarra izan behar dute, inguruarekin bat etorri behar dute kromatikoki, beti garbitasun- eta mantentze-egoera onean egotea eta ezin da inola ere kolore deigarriak erabili. Gehienez 15x15 cm-ko publizitatea jarri ahalko da.

SALTOKIAREN FATXADAN AINGURATUTAKO EDO FINKATUTAKO TOLDOAK

Baldintza hauen arabera baimenduko dira:

- a) Puntu bakar batean ere ez dira irtengo espaloiairen zabalera baino harago eta 4 m baino harago.
- b) Hedadura guztian zehar, 2,20 metro baino garaiera altuagoan jarri behar dira, espaloiairen edo parean duen espazioaren lur-arrasetik neurtuta; altuerak ezin du aipatutakoa baino txikiagoa izan puntu bakar batean ere. Altuera horren azpitik, euskarriak eta toldoak zabaltzeko eta biltzeko behar diren gainerako elementuak bakarrik jar daitezke, fatxadako lerrotik gehienez ere 0,20 m irtenda.
- c) Ezin izango dituzte lurrean bermatzeko elementurik izan.
- d) Berariazko lizentzia beharko da horiek jartzeko.
- e) Jardueraren ordutegia amaitu ondoren toldoa jaso beharko da.

EGITURADUN TOLDO MUGIKORRAK

Gutxieneko baldintza hauek bete beharko ditu hiri paisaia ahalik eta inpaktu txikiena izan dezan:

- a) Okupatzen duen gainazalaren inguruan kokatutako toldo mugikor eta desmontagarriak ezin dira ainguratu ez zorian, ez fatxadan.
- b) Zabaldua daudenean, terrazaren oinplanoko proiektzioa 50 cm gainditu ahal izango dute, gutxieneko garaiera libreak ezingo du 2,50 m baino txikiagoa izan eta ez du itxitura bertikalik izango. Gehienezko altuera 3,50 m-koa izango da eta beti inguruko eraikinetako lehen solairuko forjatuaren goiko aldearen azpitik geratu behar dute.
- c) Behin ordutegia amaituta, egitura lokalaren barrura sartu behar da eta, posible ez bada, aurrez baimendutako leku batean jar daiteke, oinezkoen eta ibilgailuen igarotzeari kalterik eragiten ez dion leku batean (adibidez, lehendik dauden hiri-altzarien lerro berean).
- d) Berariazko lizentzia beharko da horiek jartzeko.

19. artikulua. Garbitasunerako elementuak.

Erretzen den mahai guztietan hautsontziak egotea bermatu beharko da.

20. artikulua. Informazio moduluak.

Ez da behar berariazko lizentziarik horiek jartzeko. Ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) Gehienez 0,70 m x 1,20 m neurtu ahalko dute.
- b) Finkatze-elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezten.
- c) Informazioa euskaraz azaldu beharko dute lehentasunez.
- d) Arbela motakoak zein informazioa paperean itsatsia duten panelak izan daitezke
- e) Debekatuta dago establezimenduarekin zerikusirik ez duen informazioa jartzea.

21. artikulua. Bestelako elementu osagarriak eta debekatutakoak.

- a) Ez da zerbitzurik eskaini ahalko duen barrarik onartuko.

- b) Ez da inolako gordailu edo armairurik jartzea baimenduko.
- c) Ez da inongo kasutan terrazen eremua artifizialki berotzeko edo freskatzeko sistemarik baimenduko.
- d) Debekatuta dago baimendutako espazioan edari eta izozkietarako hozkailuak, litxarreriak, jolasak edo opariak edukitzea.
- e) Ez dira terraza eremuan ikus-entzunezko ekipoak baimenduko (irradi, telebista nahiz musika sortzeko inolako elementurik ezartzea).
- f) Elementu osagarriak hiri altzariekin edo terraza elementuekin lerrokatuta egon beharko dira.

IV. TITULUA. SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK JARTZEA.

IV.I. ATALA. INSTALAZIOEN BALDINTZAK

22. artikulua. Salgai dauden produktuaren erakuslekuen ezaugarri teknikoak.

Baimena eman ahal izango da produktuak erakuslekuen bidez bide publikoan erakutsi edo saltzeko, jabaria edozein dela ere erabilera publikoa duten lurzoruetan, betiere honako araudi honetara egokituz gero eta arau hauek betez gero:

- a) Erakuslekuak behar bezala margotuta eta korrosiotik babestuak egongo dira, guztiz garbi. Gurrpilak izango dituzte alde batetik bestera eramateko, eta beharreko lotura-elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezten. Debekatuta dago lurrean nahiz fatxadaren inolako euskarririk jartzea. Erakuslekuen egiturek ez dute ertz zorrotzik izango.
- b) Erakuslekuak eraikinaren fatxadari atxikita instalatuko dira, eta luzerak ezingo du gainditu jarduera duen lokaleko fatxadaren luzera. Inguruko etxebizitzaren sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da eta, erakuslekua jartzen duen lokalaren aurrekoa 2 m-koa izan ahalko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.
- c) Erakuslekuak gehienez metro bateko sakonera izango dute.
- d) Ibilgailuak dabilten kaleetako espaloietan 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta erakuslekuen zabalera kokatzen diren espaloiko zabalaren herenakoa izango da.
- e) Oinezkoen kaleetan eta plazetan 3 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da.
- f) Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.
- g) Arkupe edo ataripe gisako pasabide estalietan 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da.
- h) Erakusten diren produktuak, lurretik 0,50 metroko altueran jarriko dira gutxienez.
- i) Erakuslekuak eta salgaiek osaturiko multzoa ez da 1,60 m baino altuagoa izango.
- j) Debekatuta dago bide publikoan salmentako produktuak pisatu, neurtu edo kobratzeko elementuak jartzea.
- k) Erakuslekuak establezimenduaren kanpoaldean eduki ahal izango dira merkataritza-ordutegian. Ordutegi hori amaitzean erretiratu egin beharko dira, eta okupatzen zuten bide publikoa garbi utzi.

l) Elikagaiak banatzeko kaxak erakusleku gisa erabili nahi izanez gero, horiek kontserbazio-egoera onean egon beharko dute eta kanpoaldean erakusteko estetika egokia izan beharko dute.

m) Erakutsi beharreko produktuak elikagaiak badira, kaxa motako erakusleku bereziak erabili beharko dira, behar bezala antolatuta daudenak.

n) Erakuslekuak *ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen mugikortasun-bastoiak detektatzeko gai izan beharko dira*

23. artikulua. Merkataritza jardueren elementu osagarrien ezaugarriak.

Arau hauek bete behar dira:

a) Dekorazio elementu eta kartelak beharrezko finkatze-elementuak izango dituzte erabiltzen diren bitartean mugitu eta irauli ez daitezzen. Debebatua dago lurrian nahiz fatxadaren inolako euskarririk jartzea. Dekorazio elementu eta kartelen egiturek ez dute ertz zorrotzik izango.

b) Dekorazio elementuak edo kartelak fatxadaren alboan jarriko dira. Lokalaren fatxadaren luzeran zehar jar daitezke, inguruko etxebizitzaren sarbidearen aurrean 3 m-ko zirkunferentzia bat libre utzi beharko da eta, erakuslekua jartzen duen lokalaren aurrekoa 2 m-koa izan ahalko da. Zirkunferentzia hori, atariaren edo establezimenduaren sarreraren aurrean geratu beharko da, haren ardatzean.

c) Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietan 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da eta elementuen sakonera, gehienez, 0,60 metrokoa izango da.

d) Oinezkoen kaleetan eta plazetan 3 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da. Dekorazio-elementuek eta kartekek, gehienez, 0,60 metroko sakonera izango dute.

e) Oinezkoen zirkulazioa eta hiri-altzarien erabilera era egokian bermatzeko, kasu bakoitzean bete beharreko zabalera librean ezingo da egon hiri-altzaririk edo bestelako elementurik.

f) Arkupe edo ataripe gisako pasabide estalietan ere 2 metroko zabalera libreko pasabidea bermatuko da,

V. TITULUA. BAIMEN ADMINISTRATIBOAK.

24. artikulua. Baldintza orokorrak.

Edozein terraza mota instalatu ahal izateko, aurrez, baimen administratiboa beharko da, zeina udal-lizentzia moduan emango baita.

Lizentziak emango dira, jabetzako eskubidea errespetatuta eta beste pertsonen eskubideari kalterik egin gabe. Hala, onuradunak ezingo du udal-lizentzia argudio gisa erabili bere jarduna aurrera eramatean izan dezakeen erantzukizun zibila edo penala salbuesteko edo murrizteko.

Eskumena duen udal organoak instalazioa bide publikotik ken dadin agindu ahalko du, baldin eta beharrezkoa bada trafikoarekin, urbanizazioarekin, obra publikoekin edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrekin lotutako arrazoiengatik.

25. artikulua. Baimena emateko prozedura.

25.1. Eskaerak.

Interesatuak alkateari zuzendutako eskaera aurkeztu beharko du udaleko Erregistro Nagusian (aurrez aurre edo on-line), artikulua honetan adierazitako dokumentazioarekin batera:

a) Eskaera orria (IV. eranskina) egoki beteta eta sinatuta.

b) Okupazioaren kokalekuaren planoak, okupatuko den espazioaren eta oinezkoen zirkulaziorako nahiz lokal eta atarietara sartzeko espazio libreen zehaztapenarekin; halaber, oinezkoen pasabideetara, larrialdiko irteeretara, autobus eta taxien geltokietara, zintzilikarioak dauden puntuetara edo inguruan izan daitezkeen edozein elementura (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, zutabeak, bankuak, hiri-altzariak, e.a.) dauden distantziak azaldu beharko dira.

Era berean, okupazio eremuaren barnean udal zerbitzuko estalduren arketak (ura, saneamendua, gasa...) baleude, hauek ere planoan adierazi beharko dira.

Planoa erraz irakurtzeko modukoa eta argia izan beharko da eta uda eta negu denboraldiko proposamenak desberdinak badira bi plano aurkeztu beharko dira.

c) Gutxienez 1:100 eskalako planoak edo krokis kotaduna (kartografia ofizialeko oinaren arabera), zeinetan zehaztuko baitira jarri nahi den terraza-eredua, kokalekua, jarri nahi diren mahaien kopurua eta modulua, mahai arteko pasabide, lokalaren fatxadaren luzera eta baldin baleude terrazako gainerako elementuen antolaketa (ad: albo-babesak, eguzkitakoak, mahai irisgarriak). Terrazaren ordutegia bukatu ondoren terrazako elementuak pilatzeko azalera okupatzea beharrezkoa baldin bada, hori ere zehaztu beharko da planoan.

Terrazak guztira hartzen duen okupazio-azalera kolore desberdinduko errektangulu baten bidez garbi adierazi beharko da eta azalera horrek barnebidu beharko ditu elementu osagarriak ere.

Planoa edo krokisa erraz irakurtzeko modukoa eta argia izan beharko da eta uda eta negu denboraldiko proposamenak desberdinak badira bi plano edo krokis aurkeztu beharko dira.

d) Alboko lokalek haien establezimenduaren aurrean dagoen espazioa erabiltzeko eskubideari uko egin izanaren ziurtagiria, baldin eta halakorik behar bada.

e) Lokalaren fatxadaren argazkia, baita albokoena ere hauen parean kokatuko bada terraza.

f) Estalki egitura balego, hau ageri den kokalekuaren eskalako plano eta altxaera kotadunak eta egitura sistemaren xehetasunak (nola jasoko den etab.), teknikari eskudunaren sinadura duen ziurtagiriarekin eta azalpen-memoriarekin batera.

g) Albo-babesak baleude hauen deskribapena, neurriak, katalogoak, argazkiak.

h) Terrazako instalazioak eragin ditzakeen kalteak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.

25.2. Baimena ematea.

Eskaera ordenantza honetan eskatutako moduan egin ondoren, eta egoki irizitako txosten teknikoak aurkezturik, udal-organo eskudunak ebatziko du baimenari buruz, legez ezarritako epean, lizentzia ukatuz edo emanez.

Bide publikoaren okupazioari buruzko txostena egiten duten teknikariek aztertuko dituzte egindako eskaerak, aurkeztutako dokumentazioarekin batera, eta, kasua hala bada, falta den dokumentazioa aurkez dadin eskatuko dute. Hori egitean, eskatzaileari jakinaraziko diote ez zaiola baimenik emango adierazitako dokumentazioa aurkeztu ezean. Bestela, egindako eskaera onar dezakete. Kasu horretan, okupazioak bete beharreko baldintzak zehaztuko dituzte, eta plano batean adieraziko dituzte gehienez okupa daitezkeen eremuak -terrazza-ereduaren arabera-, kokalekua, mahai-moduluak eta eskatutako albo-babesak.

Lizentziaren dokumentuan jasoko dira okupazioaren baldintzak, betebeharrak eta gehienezko

mugak. Okupazioaren kokaleku zehatza adierazten duen planoak aurkeztuko zaio interesatuari. Horrez gain, gehienezko azalera eta baimendutako mahai moduluak, oinezkoen zirkulaziorako pasabideak eta, ordenantza honen arabera, okupazio bakoitzak bete beharreko gainerako baldintzak zehaztuko dira.

Udal-organo eskudunak terrazak jartzeko lizentzia ukatu ahalko du, baldin eta interes publikoak hala eskatzen badu, trazadura, kokapena, bide-segurtasuna, obra publikoak edo egoki irizitako beste edozein arrazoi dela eta.

Lizentzia ematea egokitzat jotzen ez bada edo baimena ematean aldaketaren bat egin beharko balitz, udalak audientzia eman beharko dio eskatzaileari, hark egoki irizitako alegazioak egin ahal izan ditzan.

Baimenak gehienezko okupazio-espazio baterako eman ahalko dira, eta urtebeteko eperako (urtearen amaieran, izan terrazaren titularraren aldetik, nahiz udalaren aldetik, inolako aldaketarik komunikatzen ez bada automatikoki baimena beste urte betez luzatuko da), aldi baterako eta besterendu ezineko izaerarekin (banan-banan). Hala eta guztiz ere, udalak baimena atzera bota ahalko du, baimena emateko inguruabarrak desagertuz gero edo, baimena emateko unean gertatu izan balira, lizentziari uko egitea eragingo zuketan inguruabarrak sortuz gero.

Baimenaren titularrak egoki irizitako moduan erabili ahalko du espazioa (baimendutako muga barruan), okupazio azalerari dagozkion tasa ordainuz, kontuan izanik baimendutako okupazio maximoa, terraza jarri nahi duen denbora edota urte-sasoa.

Gerta daiteke terrazak jartzeko baimena bai baina estalki egiturak jartzekorik ematerik ez izatea, establezimenduaren kokapena edo ordenantza hauetan azaldutako irizpenak kontuan hartuta.

25.3. Baimena etetea.

Baimenak eten egin ahalko dira, kalte-ordainik jasotzeko aukerarik gabe, honako kasu hauetan:

a) Zigorrek jartzeagatik.

b) Interes publikoagatik, obrak egin behar direlako, baimendutako aldordioak jarri behar direlako edo larrialdiko egoerengatik terrazak okupatutako espazioak libre geratu behar duenean.

Baimenak bere efikazia erreperatuko du etendura justifikatu duten inguruabarrak desagertzean, ebazpen administratibo baten beharrik gabe.

Interes publikoagatik baimena eteten bada, tasak proportzionalki itzultzeko ebazpena emango da, edo aldi baterako beste espazio bat ezarriko da -erabakia hartzeko baldintzek eragiten ez dutena-, ordenantza honetan adierazitako baldintzetan.

Terraza adskribatua duen ostalaritzako establezimenduaren baimena iraungitzen edo eteten bada, edota edozein arrazoiengatik ixten bada, automatikoki etengo da terrazaren baimena ere.

c) Lizentzia jaso eta bi hilabeteko epean tasa ez ordaintzeagatik.

25.4. Baimenen transmisioa.

Baimenak ezin dira transmititu modu independentean, terrazaren baimena adskribatuta dagoen jarduerarekin lotuta baitago.

Ostalaritzako establezimenduko jardueraren titulartasun transmisioa eta terrazarena batera egin nahiko balira, titulartasun aldaketarekin batera eskatzaileak espresuki adierazi beharko du. Udalak terrazaren erabilera baldintzak komunikatuko dizkio titulartasun aldaketa baimentzearekin batera.

Udalak jardueraren titulartasun transmisioa baimentzen badu ere terrazarena ukatu dezake edo zuzenketak egiteko eskatu. Aldiz, alderantziz ez da inoiz posible izango, terraza lizentzia eskualdatzeko baimena lortzeko jardueraren titulartasun transmisioa frogatu beharko baitu lehendabizi.

Ostalaritzako establezimenduko jardueraren titulartasuna aldatu dela jakinarazten ez bada, berriz, baimenaren titularrak dituen erantzukizunetara lotuak geratuko dira bi subjektuak.

VI. TITULUA. BETEBEHARRAK.

26. artikulua. Instalazioaren titularrarenak.

Dagokion tasa ordaintzea, udalak baimendutako okupazioaren barruan jarri nahi dituen mahaien kopurua, establezimendu lokalaren eta terrazaren arteko proportzioa eta egituradun toldo mugikorren instalazioa kontuan izanda.

Baimendutako eremuan, ordaindutako tasari dagokion elementuen kopurua eta modulu-motak jartzea, entregatutako planoan baimendu eta adierazten diren mugak errespetatuz.

Ostalaritzako establezimenduak zerbitza ditzakeen janari eta edariak zerbitzatzea, non eta ez dagoen elikagaiak manipulatzeko zerbitzua mugatzen duen ebazpen espresurik.

Udal-zerbitzuek ikusteko eta eskuratzeko moduan izatea baimena bera eta dagokion planoan. Lokalaren kanpotik ikusgarri den leku batean jarri beharko da.

Terraza jartzeko finkaturiko ordutegia betetzea.

Terraza eta haren elementu osagarri guztiak kentzeko obligazioa betetzea, ixteko ordua iristean. Baimenaren epea amaitzean, itxiturak kentzeko obligazioa betetzea.

Baimendutako ordutegia amaitzean terrazan dauden pertsonak terrazatik joan daitezten arduratzea.

Udalak instalazioaren kontserbazioko eta mantenuko egoera ikuska dezan uztea, okupazioaren baldintzak betetzeko egin beharreko konponketak edo bestelako ekintzak zehazteko.

Instalazioak baimendutako espazioan edo jarduera martxan dagoen bitartean sortutako kalte guztien gaineko erantzukizuna hartzea. Titularrak bere kontura eta modu egokian konpondu beharko ditu kalte horiek, udaleko teknikarien gainbegiradapean.

Izaera orokorreko betebeharrak eta ordenantza honen aplikaziotik eratorritakoak albo batera utzirik, instalazioaren titularrak obligazioa izango du okupatzeko baimendutako lurzorua nahiz instalazioa bera eta haren elementu osagarriak garbi, seguru eta txukun mantentzeko. Beraz, une oro terrazaren eta lokaletik terrazara dagoen eremuaren garbitasuna bermatzeko beharrezkoa dena egin beharko du, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak izan beharko ditu.

Jardueraren titularrak gainerako bizilagunen lasaitasunerako eskubidea errespetatu beharko du. Hortaz, ez du onartu behar iskanbilarik, liskarrik edo zaratarik instalazioan; bereziki, 22:00etik aurrera eta 9:00ak baino lehen.

27. artikulua. Udalarenak.

Okupazioa finkatzea eta zehaztea, kokalekuaren plano bat aurkeztuz. Plano horretan zehaztuko dira okupa daitezkeen azalera, mahaien kopurua eta modulua, albo-babesak eta oinezkoen zirkulaziorako pasabideak. Udalaren dokumentu horretan, instalazioaren irekitzeko eta ixteko ordua zehaztuko da.

Baimenaren titularraren eskura jartzea okupa ditzakeen lursailak, baimena jakinarazten den

egunaren hurrengotik.

Espedienteetan audientziako tramitea ematea, eta eskatzaile bakoitzari hartutako erabakiak jakinaraztea.

Baimena aldez aurretik eteteagatik bide publikoaren okupazioa amaitzean, dagokion zenbateko proportzionala itzultzea.

Ikuskapena egitea, eta instalazioa aurkezturiko dokumentazioarekin eta proiektuarekin eta baimena emateko baldintzekin bat datorrela egiaztatzea.

VII. TITULUA. ZEHAPEN ERREGIMENA

28. artikulua. Ikuskapenak.

Udaltzaingoak eta udal-lurren erabileraren ondare-kudeaketa esleitu duen udal-zerbitzuak zaindu eta kontrolatu behar dute ordenantza hau betetzen den.

Udaltzaingoak, edozein pertsona fisikok edo juridikok eta edozein entitatek salatu ahalko ditu, udalaren aurrean, ordenantzaren edo baimenaren baldintzen urraketak. Horretarako, salaketa-idatzi bat aurkeztu beharko da, egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak aurkeztuta eta Administrazio Publikoaren Prozedura Administrazio Komunari buruzko 39/2015 Legearen 66. artikuluan jasotako xedapenak beteta.

29. artikulua. Udal lizentziarik ez duten instalazioak.

Udal-organo eskudunak, aurrez interesatuari audientziako epe bat eman ondoren, berehala kendu ahalko du udal-lizentziarik gabe jarritako terraza, eta udal-zerbitzuen biltegian utzi, hargatik eragotzi gabe hurrengo artikuluen arabera aplikatu beharreko zehapenak.

Derrigorrezko udal-lizentziarik gabe jarritako instalazioa kentzean, dagokion diruzko zehapena ezartzeaz gain, jardueraren titularra desgaituta geratuko da ordenantza honetan araututako baimenak etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez 2 urtez.

30. artikulua. Arau-haustea.

Arau-haustek izango dira lizentzia emateko udal-ebazpenean jasotzen diren baldintzen kontrako edo, oro har, ordenantza honetan xedaturikoaren kontrako ekintza edo ez-egite guztiak.

Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

30.1. Arau-hauste arinak.

- a) Lizentzian baimendutako espazioa ez den beste espazio bat okupatzea.
- b) Moduluak emandako planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
- c) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, % 20 baino portzentaje txikiagoan. Neurriz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.
- d) Baimena eta baimenaren planoak ikusteko moduan ez edukitzea.
- e) Okupaturako eremua ez garbitzea egunero eta modu egokian.
- f) Musika-aparatuak, bozgorailuak edo ikus entzuneko elementuak instalatzea.

- g) Auzokoen atsedena errespetatuko ez lukeen zarata sortzea.
- h) Mahai irisgarria behar bezala kokatuta edo identifikatuta ez egotea
- i) Ordenantzako baldintza orokorrak, espezifikoak eta instalatu beharreko elementuen ezaugarriak ez betetzeagatik arau hauste larri edo oso larri gisa tipifikatu gabe dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite, betiere nahita egina ez bada edo ez betetzea behin eta berriro gertatzen ez bada.

30.2. Arau hauste larriak.

- a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.
- b) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 20 eta % 40 artean. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.
- c) Baimendu gabeko espazioak okupatzea: oinezkoen zirkulazioari traba egiten diotenak, edo larrialdiko zerbitzuen, zerbitzu publikoen, eraikinen (atariak, garajeak, etab.) edo merkataritzako lokalen sarbidea edo segurtasuna eragozten dutenak eta trafikoaren ikusgaitasuna zailtzen dutenak.
- d) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 20 minutu baino gehiagoan, eta 60 minutura arte.
- e) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legezatzeko proiekturik gabe.
- f) Eremua artifizialki berotzeko edo freskatzeko sistemak jartzea.

30.3. Arau-hauste oso larriak.

- a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri edo gehiago egitea.
- b) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 40 baino portzentaje handiagoan. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.
- c) Terraza baimenik eskatu edo lortu gabe jartzea.
- d) Terraza edo eremua baimendu gabeko jarduera bat egiteko erabiltzea.
- e) Hiri-altzariak, eserlekuak, paperontziak, farolak eta abar udal-baimenik gabe kentzea edo lekuz aldatzea.
- f) Baimenik ez izateagatik instalazioa kentzeko edo baldintzak betetzen ez dituzten elementuak kentzeko agindua ez betetzea.
- g) Jabari edo erabilera publikoko ondasunetan edo alboko ondasunetan kalte larriak eragiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.
- h) Trafikoarekin, urbanizazioarekin, interes orokorrarekin edo udal-interesarekin lotutako arrazoiengatik terraza jasotzeko eta kentzeko agindua eta epeak ez betetzea.
- i) Emandako eskubidea iraungitzean terraza jasotzeko eta kentzeko eta okupaturako espazioa hutsik uzteko agindua eta epeak ez betetzea.
- j) Baimena alokatzea, lagatzea edo eskualdatzea ostalaritzako establezimenduaren jarduera lizentziarekiko modu independentean.

k) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legeztatzen diren proiekturik gabe, baldin eta instalazioak pertsonetan edo haien ondasunetan berehalako arriskua sortzen badu.

l) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 60 minutu baino gehiagoz.

31. artikulua. Zehapenak.

1. Zehapenaren graduazioa modu arrazoituan zehaztuko da, inguruabarrak kontuan hartuta; besteak beste, hauek: ekintza nahita egin izatea; sortutako kalteen larritasun handiagoa edo txikiagoa; ordena gehiago edo gutxiago oztopatzea; ekintza edo ez-egitea errepikatzea; beste pertsona edo jarduera batzuen eskubideen lasaitasun edo jardun baketsuan sortutako eragozpen maila; osasun-egoeran eta apaingarri publikoetan sortutako eragozpenen maila; zerbitzu edo espazio publiko bat erabiltzeko pertsonak duten eskubidean sortutako eragozpen-maila; zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalean sortutako eragozpenaren maila; zerbitzu edo espazio publiko edo pribatu baten ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuetan sortutako kalteen maila; kontuan hartzeko modukoa izan daitekeen beste edozein inguruabar.

2. Santzio bat jartzeak ez du murrizten sortutako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa.

3. Zehapenak mota askotakoak izan daitezke: ohartarazpen hutsa, diruzko zehapena edo isuna, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzena behartzea, eta baimena ezetate eta instalazioa kentzera behartzea.

4. Tipifikatutako arau-hausteei zehapen hauek aplikatuko zaizkie:

a) Arau-hauste arin bakoitzeko, ohartarazpena edo 250 eta 500 € arteko isuna.

b) Arau-hauste larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzena behartzea, gehienez hilabete batez, eta 501 eta 1.500 € arteko isuna.

c) Arau-hauste oso larri bakoitzeko, baimena aldi baterako etetea eta instalazioa kentzera edo zigilatzena behartzea, gehienez sei hilabetez, eta 1.501 eta 3.000 € arteko isuna, edo baimena baliogabetzea, eta 3.000 € arteko isuna, instalazioak kentzeko obligazioarekin batera.

5. Zigortutako arau-hausteak behin eta berriz errepikatuz gero, honako graduazio hau aplikatuko da isunean, eta, horrez gain, baimena etetea eta instalazioa bide publikotik kentzea edo zigilatzea aginduko da, epe hauetan:

a) Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago eginez gero, bigarrenari 300 €-ko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau-hauste larritzat jotzen denez gero, baimena eten egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzena behartuko da jardueraren *titularra*, hilabete batez, eta, hala badagokio, 301 € eta 600 € arteko isuna ezarriko zaio.

b) Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago eginez gero, bigarrenari 600 €-ko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau hauste oso larritzat jotzen denez gero, baimena eten eta baliogabetu egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzena behartuko da jardueraren *titularra*, hiru hilabetez edo behin betiko -baimena baliogabetuz-, eta, hala badagokio, 601 € eta 1.000 € arteko isuna ezarriko zaio.

c) *Urtean bi arau-hauste oso larri edo gehiago eginez gero, bigarrenari 1.000 €-ko graduazioa ezarriko zaio, eta hurrengoan, arau hauste oso larritzat jotzen denez gero, baimena eten eta baliogabetu egingo da eta instalazioak kentzera eta zigilatzena behartuko da jardueraren titularra, sei hilabetez edo behin betiko -baimena baliogabetuz-, eta, hala badagokio, 1.001 € eta 3.000 € arteko isuna ezarriko zaio.*

32. artikulua. Arau-hauste arinen murrizketak

1.- Ordenantza honen 31.1 artikulua eranskinean jasotzen diren isunak % 30eko murrizketaz aplikatuz ordaindu ahal izango dira; beti ere, zigor-espedientea ireki dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 egunetan ordaintzen den kasuetan.

Goian esandako murrizketaz baliatuz egindako ordainketa arinek dakarte alegazioak eta helegiteak egiteari uko egitea eta prozedurari berariazko ebazpena egin beharrik gabe amaiera ematea.

2.- Isuna irmo bihurtzen denetik aurrera, hurrengo hamabost lan egunetan, isunaren kopuru nominala ordaindu ahal izango da.

3.-Aurreko atalean ordaintzeko ezarritako epea bukatu eta isuna ordaindu gabe baldin badago, isunaren ordainarazpena premiamendu bidez egingo da, eta dagozkion errekarquak aplikatuko zaizkio.

33. artikulua. Arau-haustea eta zehapen preskripzioa.

1.- Arau hauste arinak urte bat igarota preskribatuko dira, larriak hiru urte igarota eta, oso larriak bost urtetara.

2.- Arau hauste preskribatze data arau haustea gertatu eta, hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontaktzen.

3.- Zigor espedientearen hasierarekin preskribatze epea eten egingo da, beti ere arau-haustalea jakinaren gainean jarri ondoren. Handik aurrera, espedientea hilabetez geldirik badago, arau-haustalearen kulparik gabe, berriro martxan jarriko da preskripzio epea.

4.- Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak 5 urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak hiru urteren buruan eta, arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.

5.- Zigorren preskribatze data zigorraren ebazpen irmoa ematen den hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontaktzen.

6.- Arau hausleari premiamenduzko bidearen hasieraren berri egiten zaionean emango da preskribatze epearen etetea. Handik aurrera, espedientea hilabetez geldirik badago, arau hauslearen kulparik gabe, berriro martxan jarriko da preskripzio epea.

7.- Zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Hernaniko udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko eskatu ahal izango die erantzuleei, dena dela ere igarotako denbora.

34 artikulua. Exekuzio subsidiarioa.

1. Instalazioaren arduradunak ez badio kasurik egiten bide publikoan instalatutako elementuak kentzeko udal aginduari ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, udalak aukera izango du, subsidiarioki, instalazioa kentzeko. Kasu horretan, dagokien lekuan utziko dira, eta jabeak handik hartu ahalko ditu, baina, aurrez, gastuak ordaindu beharko ditu, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedaturikoarekin bat.

2. Terrazak jartzeagatik espazio publikoan kalteak egiten badira eta ez badira konpontzen, udalak berak konpondu ahalko ditu, exekuzio subsidiarioaren bitartez kaltea egin duenari kobratuz.

3. Artikulu honetan xedaturikoaren arabera kendu diren elementuak ezingo dira egon biltegian gordeta 6 hilabetetik gorako epean.

VIII. TITULUA. XEDAPENAK.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.

Terraza eta mahaitxoak jartzeko jadanik emanda dauden baimenak ordenantza honetan zehazturiko baldintza teknikoetara pixkanaka egokitu ahal izateko, hiru hilabete izango dituzte lizentzia berria eskatzeko, ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera. Momentu horretatik aurrera araudi honetara egokitzen ez diren terraza guztien baimena behin-behinekoa izango da baimena berritu arte. Baimena eskuratzen duen egunetik hilabete bat egongo da baimen horretan eskatzen diren aldaketak aplikatzeko. Epe horretatik aurrera, terraza eta mahaitxo guztiek ordenantza honetan zehazturiko baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

Ordenantza hau indarrean jartzean tramitazio-fasean dauden baimenen kasuan, xedapen hauetara egokitu beharko dira egin beharreko tramiteak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu ondoren bertan zehazturiko baldintza teknikoetara egokitzeko udalak emango dituen lizentziak, 2024ko urtarrilaren 1etik izango dute eragina.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Larrialdiko egoera deklaratu gero, alkateak ahalmena izango du ordenantza honetan adierazitakoez besteko baldintza batzuk ezartzeko terrazei, emandako lizentzietan jasotako baldintzen ordeiz. Salbuespenezko baimen horiek bertan behera geratuko dira, automatikoki, larrialdiko egoera amaitzen denean.

Ordenantza honen euskarazko eta gaztelarazko bertsioen arteko alde semantikoak agertuko balira, euskarazko bertsioa izango da balioko duena.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza honetako xedapenak indarrean sartuko dira eta Hernaniko udalerrian aplikatuko dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren hurrengo egunetik aurrera.

Indarrean dagoen ordenantza indargabetuta geratzen da.

IX. TITULUA. ERANSKINAK.

I. ERANSKINA. - 30. artikuluan xedatzen diren arau hausteentzat zehazten diren isunak:

30.1 artikuluan zehaztutako arau hausteez honako isun hauek izango dituzte:

Arau haustea	Isuna
a) Lizentzian baimendutako espazioa ez den beste espazio bat okupatzea.	500 €
b) Moduluak emandako planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.	500 €
c) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, % 20 baino portzentaje txikiagoan. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalera hartuko dira kontuan.	300 €
d) Baimena eta baimenaren planoak ikusteko moduan ez edukitzea.	300 €
e) Okupaturako eremua ez garbitzea egunero eta modu egokian.	250 €
f) Musika-aparatuak, bozgorailuak edo ikus entzuneko elementuak instalatzea.	500 €
g) Auzokoen atsedena errespetatuko ez lukeen zarata sortzea.	500 €

h) Mahai irisgarria behar bezala kokatuta edo identifikatuta ez egotea	300 €
i) Ordenantzako baldintza orokorrak, espezifikak eta instalatu beharreko elementuen ezaugarriak ez betetzeagatik arau hauste larri edo oso larri gisa tipifikatu gabe dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite, betiere nahita egina ez bada edo ez betetzea behin eta berriro gertatzen ez bada.	400 €

30.2 artikuluan zehaztutako arau hausteez honako isun hauek izango dituzte:

Arau haustea	Isuna
a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin edo gehiago pilotzea.	1.000 €
b) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 20 eta % 40 artean. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.	1.000 €
c) Baimendu gabeko espazioak okupatzea: oinezkoen zirkulazioari traba egiten diotenak, edo larrialdiko zerbitzuen, zerbitzu publikoen, eraikinen (atariak, garajeak, etab.) edo merkataritzako lokalen sarbidea edo segurtasuna eragozten dutenak eta trafikoaren ikusgaitasuna zailtzen dutenak.	1.000 €
d) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 20 minutu baino gehiagoan, eta 60 minutura arte.	1.000 €
e) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legeztatzeke proiekturik gabe.	800 €
f) Eremua artifizialki berotzeko edo freskatzeko sistemak jartzea.	1.000 €

30.3 artikuluan zehaztutako arau hausteez honako isun hauek izango dituzte:

Arau haustea	Isuna
a) Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri edo gehiago egitea.	3.000 €
b) Instalaturako mahai, aulki eta bestelako elementuek lizentzian jasotako kopurua gainditzea, guztira, lizentzian jasotakoaren % 40 baino portzentaje handiagoan. Neurritz kanpoko kopurua zehazteko, elementuek okupatzen dituzten azalerak hartuko dira kontuan.	2.000 €
c) Terraza baimenik eskatu edo lortu gabe jartzea.	1.501 €
d) Terraza edo eremua baimendu gabeko jardura bat egiteko erabiltzea.	1.501 €
e) Hiri-altzariak, eserlekuak, paperontziak, farolak eta abar udal-baimenik gabe kentzea edo lekuz aldatzea.	2.000 €
f) Baimenik ez izateagatik instalazioa kentzeko edo baldintzak betetzen ez dituzten elementuak kentzeko agindua ez betetzea.	2.000 €
g) Jabari edo erabilera publikoko ondasunetan edo alboko ondasunetan kalte larriak eragiten dituzten ekintzak edo ez-egiteak.	2.000 €
h) Trafikoarekin, urbanizazioarekin, interes orokorrekarekin edo udal-interesarekin lotutako arrazoiengatik terraza jasotzeko eta kentzeko agindua eta epeak ez betetzea.	1.501 €
i) Emandako eskubidea iraungitzean terraza jasotzeko eta kentzeko eta okupaturako espazioa hutsik uzteko agindua eta epeak ez betetzea.	2.000 €
j) Baimena alokatzea, lagatzea edo eskualdatzea ostalaritzako establezimenduaren jardura lizentziarekiko modu independentean.	2.000 €
k) Konexio elektrikoak, gas-konexioak eta abar egitea, horiek legeztatzeke proiekturik gabe, baldin eta instalazioak pertsonetan edo haien ondasunetan berehalako arriskua sortzen badu.	2.000 €
l) Ordenantza honetan zehazturiko irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, 60 minutu baino gehiagoz.	1.800 €

II. ERANSKINA. ELEMENTUEN ERANSKIN GRAFIKOAK.

III. ERANSKINA. TERRAZA LIZENTZIAREN ESKAERA ORRIA